

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA -
CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA****Tarifak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea**

Urbide Partzuergoko Batzar Orokorrak, 2022 eko urriaren 27an egindako ezohiko batzarrean, erabaki zuen hasierako onespena ematea Urbide Arabako Ur Partzuergoak erabiltzaileei edateko ura ekartzeko eta hornitzeko zerbitzuak eta saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak emateagatiko tarifak arautuko dituen ordenantza fiskalari.

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 19. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hasierako erabaki hori 2022ko azaroaren 9ko 128. zenbakiko ALHAOn argitaratu ondoren, eta legez emandako epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtu da.

Aldaketa 2023ko urtarrilaren 1ean hasiko da aplikatzen.

Idazketa berriak jarraian transkribatuko den I. eranskinari eragiten dio.

Era berean, ordenantzaren aldaketaren testu osoa argitaratu da, behin betikoa izatera igaro baita. Jende guztiak horren berri izan dezan ematen da argitara.

Erribera Beitia, 2022ko abenduaren 26a

Presidentea

JOSEAN GALERA CARRILLO

1. ERANSKINA - TARIFAK**BANAKETA**

Kuota finkoa, kontagailuaren diametroaren arabera (€):

DIAMETROA	TARIFA
15 mm arte	5,68
20 mm	9,53
25 mm	13,80
30 mm	21,91
40 mm	36,52
50 mm	57,82
65 mm	76,09
80 mm	91,31
100 mm	129,87
125 mm	213,06
150 mm	740,62
200 mm	1.298,63

Kuota aldakorra, kontsumoaren arabera (€/m³):

Ura hartzea:

	TARIFA
Partzuergoko kideak	0,635
Partzuergoko kide ez diren erabiltzaileak	0,953

Etxeko erabilera:

TARTEA	TARIFA
10 m ³ arte	0,213
11 m ³ eta 42 m ³ bitartean	0,426
42 m ³ tik aurrera	0,852

Abeltzaintza-erabilera:

TARIFA
0,934

Administrazioaren mendeko zentroak:

TARIFA
0,532

Beste erabilera batzuk:

TARTEA	TARIFA
30 m ³ arte	0,738
31 m ³ eta 100 m ³ bitartean	0,970
101 m ³ eta 240 m ³ bitartean	1,654
241 m ³ tik aurrera	2,277

SANEAMENDUA

Kuota finkoa, kontagailuaren diametroaren arabera (€):

DIAMETROA	TARIFA
15 mm arte	10,10
20 mm	13,85
25 mm	19,89
30 mm	31,45
40 mm	54,27
50 mm	84,21
65 mm	114,64
80 mm	140,01
100 mm	190,75
125 mm	292,20
150 mm	1.050,02
200 mm	1.866,77

Kuota aldakorra, kontsumoaren arabera (€/m³):

Goi-sareko arazketa:

	TARIFA
Partzuergoko kideak	0,700
Partzuergoko kide ez diren erabiltzaileak	1,050

Etxeko erabilera:

TARTEA	TARIFA
10 m ³ arte	0,202
11 m ³ eta 42 m ³ bitartean	0,404
42 m ³ tik aurrera	0,809

Abeltzaintza-erabilera:

TARIFA
0,809

Administrazioaren mendeko zentroak:

TARIFA
0,505

Beste erabilera batzuk:

TARIFA
0,809

EDATEKO URAREN HORNIKETA-ZERBITZUAREN ALTA

Kuota finkoa, kontagailuaren diametroaren arabera (€):

Era guztietako erabiltzaileak:

DIAMETROA	TARIFA
13-15 mm	109,050
20 mm	129,170
25 mm	213,599
30 mm	288,039
40 mm	408,629
50 mm	440,151
65 mm	482,172
80 mm	507,782
100 mm	594,857

EDATEKO URAREN HORNIKETA-ZERBITZUAREN BAJA

Kuota, kontagailuaren diametroa gorabehera (€):

Era guztietako erabiltzaileak:

TARIFA
48,270

BANAKETA-SARERAKO HARGUNE BERRIA

Kuota finkoa, hargunearen diametroaren arabera (€):

Era guztietako erabiltzaileak:

DIAMETROA	TARIFA
1" arte (25 mm)	1.004,405
1 1/4" (30 mm) - 1 1/2" (40 mm) - 2" (50 mm)	1.389,932
2,5" (65 mm)	2.029,100
3" (80 mm)	2.333,474
4" (100 mm) - 5" (125 mm)	2.992,923
6"-tik (150 mm) aurrera	3.855,291

HOBI SEPTIKOEN GARBIKETAKO LOHIEN TRATAMENDUA

Kuota finkoa, zisterna-kopuruaren arabera (€) eta kuota aldakorra, tratatutako kopuruaren arabera (€/m³):

PARTZUERGOKO KIDEAK	TARIFA
Harrera eta entrega	97,36
Tratamendua	22,61

KIDE EZ DIREN ERABILTZAILEAK	TARIFA
Harrera eta entrega	146,04
Tratamendua	33,92

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Urbide Arabako Ur Partzuergoak erabiltzaileei edateko ura ekartzeko eta hornitzeko zerbitzuak eta saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak emateagatiko tarifak arautuko dituen ordenantza fiskalaren behin betiko onespena

Urbide Partzuergoko Batzar Orokorrak, 2021eko urriaren 26an egindako ezohiko batzarrean, erabaki zuen hasierako onspena ematea Urbide Arabako Ur Partzuergoak erabiltzaileei edateko ura ekartzeko eta hornitzeko zerbitzuak eta saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak emateagatiko tarifak arautuko dituen ordenantza fiskalari.

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, hasierako erabaki hori ALHAOren 2021eko urriaren 27ko alean (asteazkena, 123. alea) argitaratu ondoren, eta ez denez aurkeztu erreklamaziorik legez ezarritako epearen barruan, behin betikoz onetsizat jotzen da erabakia.

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusten denari jarraiki, dagoeneko behin betikoz onetsitako ordenantzaren testua argitaratzen da, osorik.

Guztiok jakin dezaten horren berri eman dut.

Erriberabeitian, 2021eko abenduaren 16an

Lehendakaria
JOSEAN GALERA CARRILLO

Urbide Arabako Ur Partzuergoak erabiltzaileei edateko ura ekartzeko eta hornitzeko zerbitzuak eta saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak emateagatiko tarifak arautuko dituen Ordenantza Fiskala

I. Kapituluia

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Ordenantza fiskal honen xedea da ura hartzeko eta banatzeko zerbitzuak, saneamenduko eta arazketako zerbitzuak emateagatiko tarifak antolatzea eta arautzea Urbide Arabako Ur Partzuergoaren (aurrerantzean, URBIDE) eremuan.

2. artikulua. Oinarria

Ordenantza fiskal honen xede diren tarifak eratzeko oinarriak dira partzuergoko kide diren udalerrien eta administrazio batzarren lurralde-eremuan tarifen berdintasunaren printzipioa aplikatzea eta uraren ziklo osoaren kudeaketaren kontzeptua, hots, hiri- edo landa-ingurune batean uraren erabilerarako beharrezkoak diren prozesu eta jardueren multzoaren kudeaketa, hau da: sare-azpiegitura konplexua egon behar da, sare horien bitartez ura hartzen den lekuetatik kontsumo-lekuetara bideratzeko, eta goi-horniketako azpiegitura hori ura altxatzera, gordetzera, edateko ur bihurtzera eta hornitzera bideratutako instalazioekin lotzen da; ahaztu gabe iturriko ur hori erabiltzen denean, saneamendu-sareen bitartez husten dela hondakin-urak arazteko instalazioetaraino, berriro isuri baino lehen.

3. artikulua. Ahalmenak eta eskumenak

1. URBIDEK finantza-, zerga- eta arau-ahalmenak ditu, legeak esleituta.
2. Halaber, bere sorrera-arauaren arabera, partzuergoari dagokio emandako zerbitzuengatiko tarifen zenbatekoa ezartzea eta zehaztea.

4. artikulua. Eremua

1. Partzuergoko kide diren udalerrien eta administrazio batzarren eremu geografikoa da ordenantza fiskal hau aplikatzeko lurralde-eremua.
2. Ordenantzaren xede-eremuari dagokionez, ura ekartzeko eta banatzeko zerbitzuei eta saneamendu- eta arazketa-zerbitzuei eragiten die ordenantza fiskal honek.
3. Bere eremu subjektiboetara dagokienez, zerbitzu horien erabiltzaile guztiei aplikatuko zaie, horniketara eta saneamendu-zerbitzuak emateko ordenantza teknikoetan eta, hala badagokio, ordenantza fiskal honen helburu diren tarifek aipatzen dituzten zerbitzuak emateko gainerako xedapenetan zehaztuta dauden bezala.

5. artikulua. Tarifen egitura

1. Ordenantza fiskal honen tarifen egitura uraren ziklo integralean eta lurralde-uniformetasunaren, berdintasunaren, zuzentasunaren, nahikotasunaren eta kostuen berreskurapenaren printzipioetan oinarritzen da.
2. Banaketa-tarifaren tarifek barne hartzen dituzte zerbitzuaren kostu guztiak, hau da, bigarren mailako sareko berariazko kostuak eransten dizkiete lehen mailako sareko zerbitzuaren tarifei.
3. Saneamendu-tarifaren tarifek barne hartzen dituzte zerbitzuaren kostu guztiak, hau da, saneamenduko eta arazketako lehen mailako sareko berariazko kostuak eransten dizkiete estolderia-zerbitzuaren tarifei.
4. Kostuak berreskuratzearen printzipioaren arabera, ingurumen-kostuak, baliabidearen kostuak eta zerbitzuen kudeaketa-kostu finkoak eta aldakorrek estaltzera bideratuta egongo da tarifa. Nolanahi ere, zerbitzuen kudeaketako kostuek nahitaez hartuko dituzte barne lehendik dauden azpiegituren amortizazioa, azpiegitura horien ustiaketa-, babes- eta mantenu-gastuak

eta, hala badagokio, eta azpiegituren bizitza erabilgarria amaitu baino lehen, dauden azpiegituren ordez beste berri batzuk jartzeko beharrezko gastuak, zerbitzuen eraginkortasun ekonomikoa eta baliabidearen zentzuzko erabilera mantentzeko helburuz eta, ahal den heinean horiek hobetzeko helburuz.

5. Hori esanda, aintzat hartuko da Arabako Lurralde Historikoaren lurralde-egituraren osaera berezia, kostuak berreskuratzearen printzipioaren aplikazioa lurralde-orekaren, berdintasunaren eta bidezketasunaren printzipioekin batera dadin.

II. Kapitulu

Zerga-egitatea

6. artikulua. Zerga-egitatea oro har

1. Oro har, partzuergoaren lurralde-eremuan dauden erabiltzaileentzako uraren ziklo osoa osatzen dituzten jarduerak, lehen mailako sareko horniketa-zerbitzuak edo ura ekartzeko zerbitzuak, bigarren mailako sareko horniketa- edo banaketa-zerbitzuak eta saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak dira ordenantza fiskal honetan arautzen diren ordainarazpenak sortzen dituen zerga-egitatea.

2. Kapitulu honetako hurrengo artikuluetan, ur-horniketako eta saneamenduko eta arazketako zerbitzuak emateagatiko zerga-egitatetzat hartzen diren egoera desberdinak artikulatzen dira.

7. artikulua. Ur-horniketako tarifa

Horniketa-sareen erabilgarritasuna eta horietatik egindako kontsumoa da ur-horniketako tarifaren zerga-egitatea, kontsumoa lehen mailako saretik zuzenean egiten denean edo baita bigarren mailako sareetatik egiten denean ere, ura hornitzeko aukera horren eta/edo benetakoa ur-horniketaren arabera.

8. artikulua. Saneamenduko tarifa

Horniketa publiko edo pribatuko hondakin-uren isurketa –benetakoa zein potentziala– da saneamenduko tarifaren zerga-egitatea; izan ere, uraren ziklo osoa definitzen duten prozesuen arabera, isuritako bolumen horiek behar bezala tratatu behar dira eta horretarako beharrezkoa da saneamendu-sistema publikoak erakitzea, martxan jartzea eta kontserbatzea, gaur egun erabilgarri eta/edo aurreikusita dauden saneamendu-sareetan edo hondakin-urak edo -lohiak biltzeko ordezkoko sistemen eta arazketa-sistemetan oinarrituta.

Norbere baliabideetatik datozen isurketetarako, banaka eta ur-horniketako tarifatik bereizita sortuko da saneamenduko tarifa.

9. artikulua. Saneamendu-tarifatik salbuetsita dauden kasuak

Saneamendu-tarifatik salbuetsita egongo dira Partzuergoak ezarritako arauketaren arabera isurketa dispensa eskuratu duena.

10. artikulua. Horniketa-, saneamendu- eta arazketa tarifei lotutako erabilerak

A. Ur-horniketako tarifarako:

Ur-horniketako lehen mailako (ura ekartzea) eta bigarren mailako (banaketa) sareko zerbitzuak emateagatiko tarifak zehazteko, abiapuntu ezberdinak bereizi behar dira:

1. Lehen mailako sareko horniketak (ura ekartzea): Haien jardueraren ezaugarriak direla eta, zuzenean Partzuergoaren lehen mailako saretik hornitzea eskatzen duten erabiltzaile ez etxetiarrei bideratutakoak. Horietako batzuk partzuergoko kide diren erabiltzaileak izango dira, eta beste batzuk ez.

2. Bigarren mailako sareko horniketak (banaketa):

Gainerako horniketak dira; horniketa horiek, aldi berean, eta kontsumoaren erabileraren arabera, honako mota hauetakoak izan daitezke:

a) Etxeko erabileretarako horniketak; etxebizitzetan egiten direnak dira, beti ere bertan inolako industria, merkataritza edo lanbide jarduerarik egiten ez bada.

b) Abeltzaintzarako eta/edo nekazaritza-jardueretarako horniketak.

c) Administrazioaren mende dauden zentroetarako horniketak.

d) Beste erabilera batzuetarako horniketak; EJSNean jasota dauden eta aurrez aipatu ez diren jardueretatik eratorritakoak eta etxetiarrak ez diren zehaztu gabeko beste kontsumo batzuk.

B. Saneamenduko tarifarako.

a) Etxeko erabileretatik datozen isurketak; etxebizitzetan egiten direnak dira, beti ere bertan inolako industria, merkataritza edo lanbide jarduerarik egiten ez bada.

b) Abeltzaintzako eta/edo nekazaritza-jardueretako erabileretatik datozen isurketak.

c) Administrazioaren mende dauden zentroetatik datozen isurketak.

d) Beste erabilera batzuetatik datozen isurketak; EJSNean jasota dauden eta aurrez aipatu ez diren jardueretatik eratorritakoak eta etxetiarrak ez diren zehaztu gabeko beste kontsumo batzuk.

C. Arazketako tarifarako.

Etxetiarrak ez diren eta, duten jardueraren ezaugarriengatik, haien isurketak Partzuergoaren saneamenduko lehen mailako sarean araztea eskatzen duten erabiltzaileei zuzendutakoak. Partzuergoko kide diren eta kide ez diren erabiltzaileak bereizten dira.

Isurketa etxetiarren parekoak ez diren industria-isurketak arazteko zerbitzuaren kasuan, isurketa-kanon bat aplikatuko da gainera, eta dagokion administrazio-prozeduraren bitartez arautuko dira kanon horren tarifak eta aplikazioa.

11. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan alta emateagatiko tarifa

Partzuergoak edateko ura hornitzea eta kontagailu bat jartzea dira zerbitzuan alta emateagatiko tarifaren zerga-egitatea.

12. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan baja emateagatiko tarifa

Partzuergoak baja eman zaion kontratuaren kontagailua kentzea da zerbitzuan baja emateagatiko tarifaren zerga-egitatea.

13. artikulua. Edateko ura banatzeko sarerako hargune berriagatiko tarifa

Partzuergoak lehendik dagoen sarerako konexio bat teknikoki egikaritzea eta ikuskatzea da edateko ura banatzeko sarerako hargune berriagatiko tarifaren zerga-egitatea.

III. kapitulua

Subjektu pasiboak

14. artikulua. Subjektu pasiboak, orokorrean

1. Oro har, ordenantza fiskal honetan arautzen diren tarifen zergapekoak dira uraren ziklo osoaren zerbitzuen azken hartzaileak, zerbitzuak arautzen dituzten ordenantzetan erabiltzaile gisa definitzen direnak.

2. Zergadun moduan, pertsona fisiko eta juridikoak izango dira subjektu pasiboak, bai eta Arabako Zerga arloko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeak ere, betiere, ordenantza fiskal honen helburu den zerbitzuak eskatzen badituzte, horien onuradun badira edo eurengan eragina badute.

3. Bestetik, zergadunen ordezeko moduan, pertsona fisiko eta juridikoak izango dira subjektu pasiboak, bai eta Arabako Zerga arloko Foru Arau Orokorren 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeak ere. Horrez gain, ordenantza honen helburu diren uraren ziklo osoari dagozkion zerbitzuek eragindako higiezinaren jabeak, eta eraikitzaileak eta lan-kontratatistak, betiere, tarifaren sortzapena lanen betearazpenari lotzen bazaio.

4. Zergadunak nahiz zergadunaren ordezekoak zordun nagusi bezala ordaindu behar du. Tarifaren kitapena egiten edo bidaltzen zaion zergadunak edo zergadunaren ordezekoak ordaindu beharko du zerga-zorra, zergadunak edo haren ordezekoak egin ahal izan duten eskaera gorabehera.

15. artikulua. Lehen mailako eta bigarren mailako sareko ur-horniketaren tarifa

Hauek izango dira lehen mailako eta bigarren mailako sareko ur-horniketaren tarifaren subjektu pasiboak:

1. Zergadun gisa, horniketa-kontratuaren eskatzailea edo titularra edo, hala badagokio, hornikuntzari dagokion higiezinaren legezko egoilea edo erabiltzailea.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, horniketa-kontratu lotzen zaion higiezinaren jabea edo, hala badagokio, horniketak aipatzen duena.

16. artikulua. Saneamenduko tarifa

Saneamenduko tarifaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Zergadun moduan, ur-horniketako kontratuaren eskatzailea edo titularra edo, hala bada-gokio, zerbitzu horren erabiltzailea, Partzuergoaren eremuko saneamendu-sistemaren onuradun diren heinean. Saneamendu-zerbitzua banan-banan ematen bada, horretarako sinatutako kontratuaren eskatzailea edo titularra edo kontratua lotzen zaion higiezinaren legezko egoilea edo erabiltzailea.

2. Zergadunaren ordezeko moduan, ur-horniketa lotzen zaion higiezinaren jabea, Partzuergoaren eremuko saneamendu-sistemaren onuradun diren heinean.

17. artikulua. Arazketako tarifa

Arazketako tarifaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Zergadun gisa, arazketa-kontratuaren eskatzailea edo titularra edo, hala badagokio, haren onuradun diren edo haren eragina duten erakundeak.

2. Zergadunaren ordezeko moduan, bigarren mailako saneamendu-zerbitzuen titular diren erakundeak edo horien erabiltzaileak.

18. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan alta emateagatiko tarifa

Edateko uraren horniketa-zerbitzuan alta emateagatiko tarifaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Zergadun gisa, alta eskaera egin duena edo, hala badagokio, kontagailua lotzen zaion zerbitzu-kontratuaren erabiltzaile titularra.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, alta lotzen zaion higiezinaren jabeak.

19. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan baja emateagatiko tarifa

Edateko uraren horniketa-zerbitzuan baja emateagatiko tarifaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Zergadun gisa, baja eskaera egin duena edo, hala badagokio, kontagailua lotzen zaion zerbitzu-kontratuaren erabiltzaile titularra.

2. Zergadunaren ordezeko gisa, baja lotzen zaion higiezinaren jabeak.

20. artikulua. Edateko ura banatzeko sarerako hargune berriagatiko tarifa

Edateko ura banatzeko sarerako hargune berriagatiko tarifaren subjektu pasiboak izango dira:

1. Zergadun gisa, hargunearen eskatzailea edo, hala badagokio, instalazio horren erabiltzailea, Partzuergoaren eremuko horniketa-sistemaren onuradun den heinean.
2. Zergadunaren ordezkio gisa, hargunea lotzen zaion higiezinaren jabeak.

IV. Kapituluak

Zergapetzearen oinarriak

21. artikulua. Zerga-oinarria, oro har

1. Ordenantza fiskal honetan arautzen den tarifa bakoitzaren zerga-oinarria tarifa ezberdinen oinarrian dauden magnitude gisa eratzten diren parametro desberdinek osatzen dute, kapitulu honen hurrengo artikuluetan definitzen diren bezala.

2. Partzuergoko kide ez diren erabiltzaileen kasuan, ehuneko 50eko igoera aplikatuko zaie tarifei, Partzuergoko kideen tarifikiko.

22. artikulua. Lehen mailako sareko (ura ekartzea) ur-horniketaren tarifa

1. Honako hauek dira zerga-oinarria osatzen duten magnitudeak:

- a) Erabiltzaile mota; Partzuergoko kide direnak eta ez direnak bereizten dira.
- b) Ur-horniketako kontagailuaren kalibrea.
- c) Sarean txertatzen den ur bolumena.

2. Ura ekartzeagatiko tarifagatiko zerga moduan ordaindu beharreko zenbatekoa zerga-oinarria osatzen duten magnitudeen gaineko tarifak aplikatuzetik dator.

3. Tarifa horiek binomialak dira, eta, beraz, honako hauek gehituta zehazten da tarifa:

- a) Gorako kopurua, kontagailuaren kalibrearen arabera.
- b) Kopuru aldakor bakarra kontsumitutako m^3 guztietarako.

23. artikulua. Bigarren mailako sareko (banaketa) ur-horniketaren tarifa

1. Honako hauek dira zerga-oinarria osatzen duten magnitudeak:

- a) Ur-horniketako kontagailuaren kalibrea.
- b) Kontagailu horrek kontrolatzen dituen kontsumoak dituzten hornitutako etxebizitzak, lokalak edo antzeko erabilerak dituztenen kopurua.
- c) Kontsumitutako uraren bolumena, erabileraren edo helburuaren arabera.

2. Ureztatze-ahoretako, ur-harguneetako eta antzekoetako horniketen kasuan –justifikatutako aldi baterako erabilerako– horniketaren iraupena hiru hilabetez azpikoa denean, aurrez finkatutako eguneko bolumen bat aplikatzen da.

3. Banaketaren tarifagatiko zerga moduan ordaindu beharreko zenbatekoa zerga-oinarria osatzen duten magnitudeen gaineko tarifak aplikatuzetik dator.

4. Tarifa horiek binomialak dira, eta, beraz, honako hauek gehituta zehazten da tarifa:

- a) Gorako kopurua, kontagailuaren kalibrearen arabera.
- b) Kopuru aldakorra, ur-kontsumoen arabera ezarritakoa. Kontsumoak tartetan banatuta daude, eta horien zenbateko unitarioak horniketaekin lotutako erabilera ezberdinen arabera ezberdinduta daude.

5. Hainbat erabiltzaileentzako kontagailu orokor baten kasuan, haren tarifa-epigrafeko bigarren tarterako ezarritako prezioa ezarriko zaio kontsumo guztiari.

24. artikulua. Saneamenduko tarifa

1. Honako hauek dira zerga-oinarria osatzen duten magnitudeak:

a) Ur-horniketako kontagailuaren edo, hala badagokio, saneamenduko kontagailuaren kalibrea.

b) Kontagailu horrek edo, hala badagokio, saneamenduko kontagailuak kontrolatzen dituen kontsumoak dituzten hornitutako etxebizitzak, lokalak edo antzeko erabilerak dituztenen kopurua.

c) Isuria izan daitekeen ur-bolumena.

2. Saneamenduko tarifagatiko zerga moduan ordaindu beharreko zenbatekoa zerga-oinarria osatzen duten magnitudeen gaineko tarifak aplikatuzetik dator.

3. Tarifa horiek binomialak dira, eta, beraz, honako hauek gehituta zehazten da tarifa:

a) Gorako kopurua, kontagailuaren kalibrearen arabera.

b) Kopuru aldakorra, ur-kontsumoen arabera ezarritakoa. Kontsumoak tartetan banatuta daude, eta horien zenbateko unitarioak horniketarekin edo isurketarekin lotutako erabileraz ezberdinen arabera ezberdinduta daude.

4. Hainbat erabiltzailerentzako kontagailu orokor baten kasuan, haren tarifa-epigrafeko bigarren tarterako ezarritako prezioa ezarriko zaio kontsumo guztiari.

25. artikulua. Arazketako tarifa

1. Honako hauek dira zerga-oinarria osatzen duten magnitudeak:

a) Erabiltzaile mota; Partzuergoko kide direnak eta ez direnak bereizten dira.

b) Saneamenduko kontagailuaren kalibrea.

c) Sisteman isuria izan daitekeen ur-bolumena.

2. Altako arazketa-tarifagatiko zerga moduan ordaindu beharreko zenbatekoa zerga-oinarria osatzen duten magnitudeen gaineko tarifak aplikatuzetik dator.

3. Tarifa horiek binomialak dira, eta, beraz, honako hauek gehituta zehazten da tarifa:

a) Gorako kopurua, kontagailuaren kalibrearen arabera.

b) Kopuru aldakor bakarra kontsumitutako m³ guztietarako.

4. Hainbat erabiltzailerentzako kontagailu orokor baten kasuan, isurketa hainbanatu egingo da, dagozkion biztanle baliokideen arabera. Ordaindu ezean, Partzuergoaren aurreko erantzukizuna solidarioa izango erabiltzaile guztien artean; nolahi ere, ordaintzeko dagoen kopurua ordaintzen duenak, zorra duen erabiltzaileari berreskatu ahal izango dio kopurua.

26. artikulua. Ur- eta saneamendu-horniketako tarifen hobari kasuak

1. Legez aitortutako familia ugari baten ohiko bizilekua den etxebizitzaren kontsumoa etxeko erabileretarako aurreikusitako tarifaren bigarren kontsumo-tarteari dagozkion tarifak aplikatuta likidatuko da. Fakturazio-datan aplikatuko da hobaria, baldin eta une horretan exijitutako baldintza betetzen bada eta kontratuaren titularrak familia ugariaren titulua badu.

2. Hobari-irizpide bera aplikatuko da saneamenduaren zerga-oinarria kalkulatzeko.

27. artikulua. Egiatzapengatiko kitapenerako eta kontagailuen matxura edo akatsengatiko araupetzerako kasuak, Ur-horniketako eta Saneamenduko tarifetan

1. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan adierazitakoa gorabehera, kontagailuak, modu erregularrean, baimendutakoa baino errore positibo handiagoarekin funtzionatzen duela egiaztatzen den kasuetan edo, oro har, kontagailuek akatsa duten edo matxura duten kasuetan,

jarri zen egunetik hasi eta ondorengo hogeita hamar egunetan kontagailu berriaren bidez egingako kontsumoak izango dira zerga-kuota zehazteko asmoz tarifak ezarri beharreko magnitudea. Kitapenak atzera jo behar du eta hilabete horietan indarrean zeuden tarifak ezarriko dira.

2. Atzera jotzeko aldi hori ezin izango da inola ere sei hilabetetik gorakoa izan.

3. Era berean, saneamenduko zerga-egitatea hornitutako ur-bolumenaren arabera zehazten denean ere ezarri ahal izango da.

4. Isuritako emaria zuzenean zehaztea ezinezko egiten duten baldintzak daudenean, isuritako uren kopurua zehazteko zenbatespena egingo da, betiere, hornikuntza iturrien kontsumoen, prozesuan erabilitako uren eta aurreko urteko ur-balantzearen arabera. Zenbatespen hori titularraren erantzukizunpeko adierazpen arrazoitu batean oinarrituko da eta, ahal den heinean, emakidaren emaritik abiatuta.

28. artikulua. Barruko instalazioetako ezusteko matxuretarako kasua, Ur-hornikuntza eta Saneamenduko tarifetan

1. Barruko instalazioetan erabiltzailearen ohiko kontsumo-kopurua indargabetzen duen ezkutuko matxuraren bat dagoela egiaztatuz gero, etxeko erabileretarako tarifaren bigarren tarterako ezarritako prezioaren ohiko batez bestekoa gainditzen duen kontsumoa fakturatuko du Partzuergoak. Prezio bera aplikatuko da gainerako epigrafeetan.

Nolanahi ere, tarifagatik ordaindu beharreko azken zenbatekoa ezingo da izan hiruhileko azkeneko lau likidazioetan ezarritako tarifaren batez bestekoaren ehuneko 600 baino handiagoa.

2. Era berean, saneamenduko zerga-egitatea hornitutako ur-bolumenaren arabera zehazten denean ere ezarri ahal izango da.

29. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan alta emateagatiko tarifa

1. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan alta emateagatiko tarifa kontratatutako kontagailuaren kalibrearen arabera zehaztuko da.

2. Ordenantza fiskal honen eranskinean jasota daude kontagailu mota bakoitzerako tarifak.

30. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan baja emateagatiko tarifa

Edateko uraren horniketa-zerbitzuan baja emateagatiko tarifa ordenantza fiskal honen eranskinean jasota dagoen gorako kopuru bat izango da.

31. artikulua. Edateko ura banatzeko sarerako hargune berriagatiko tarifa

1. Edateko uraren banaketa-sarerako hargune berriagatiko tarifa zehaztuko da egindako hargunearen diametroaren arabera.

2. Ordenantza fiskal honen eranskinean jasota dago hargune-diametro bakoitzerako tarifak.

V. Kapituluak

Zerga-kuota

32. artikulua. Zerga-kuota

1. Bere zerga-oinarriaren magnitudeari ordenantza honetako eranskinean sailkatutako tarifak ezartzetik, edo, hala badagokio, zuzenean ezartzetik sortutako emaitzak osatuko du ordenantza fiskal honetan artikulatutako tarifa guztien zerga-kuota.

2. Ondoriozko zerga-kuotari zeharkako zergak aplikatuko zaizkio, hala badagokio, eta zehazki, balio erantsiaren gaineko zerga, arlo horretan aplika daitekeen araudian ezarritako moduan.

VI. Kapitula

Tarifen aplikazioa: kudeaketa, likidazioa eta diru-bilketa

Lehenengo Atala

Sortzapena

33. artikulua. Sortzapena oro har

1. Ordenantza fiskal honen xede diren tarifak sortuko dira, zerga-betebeharra agertuz, bakoitzaren zerga-egitatea dakarren jarduerari hasiera ematen zaionean.

2. Zerbitzuko baja bideratu den eguna hartuko da azken sortzapen-eguntzat, zerbitzua arautzen duen ordenantzan aurreikusitako baldintzetan, edo isurketa-dispentsa egin den eguna.

34. artikulua. Lehen mailako eta bigarren mailako sareko ur-horniketaren tarifak

1. Horniketa-kontratua egiten den unean sortzen dira lehen mailako eta bigarren mailako sareko ur-horniketako tarifak eta, halakorik izan ezean, horniketa hasten denean.

2. Behin horniketa ezartzen denean eta martxan dagoenean, egunero sortuko da tarifa, eta zergaldi gisa definitzen diren denbora-tarteen arabera likidatuko da.

35. artikulua. Saneamenduko tarifa

1. Saneamenduko tarifa, banaketa-zerbitzuaren zerbitzu osagarria izanik, zerbitzuaren kontratua egiten den unean sortzen da eta, halakorik izan ezean, zerbitzu hori hasten denean.

2. Saneamendu-zerbitzua modu indibidualean ematen den kasuetan, zerbitzua emateari buruzko ordenantzaren arabera, saneamenduko tarifa sortzen da isurtzeko baimena formalizatzen den unean eta, halakorik izan ezean, isurketa egiten denetik aurrera.

3. Behin isurketa ezartzen denean eta martxan dagoenean, egunero sortuko da tarifa, eta zergaldi gisa definitzen diren denbora-tarteen arabera likidatuko da.

36. artikulua. Arazketako tarifak

1. Arazketa-tarifak sortzen dira arazketa-kontratua egiten den unean eta, halakorik izan ezean, zerbitzua ematen hasten denetik aurrera.

2. Behin arazketa ezartzen denean eta martxan dagoenean, egunero sortuko da tarifa, eta zergaldi gisa definitzen diren denbora-tarteen arabera likidatuko da.

37. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan alta emateagatiko tarifa

Horniketa-zerbitzuan alta ematearekin lotutako lanengatiko tarifa sortzen da lan horiek egikaritzen direnean.

38. artikulua. Edateko uraren horniketa-zerbitzuan baja emateagatiko tarifa

Horniketa-zerbitzuan baja ematearekin lotutako lanengatiko tarifa sortzen da lan horiek egikaritzen direnean.

39. artikulua. Edateko ura banatzeko sarerako hargune berriagatiko tarifa

Edateko uraren banaketa-sarerako hargune berriarekin lotutako lanengatiko tarifa sortzen da lan horiek egikaritzen direnean.

Bigarren Atala

Zergaldia

40. artikulua. Aldizkako sortzapeneko tarifetako zergaldia

1. Aldizkako sortzapeneko tarifetako zergaldia haien zerga-oinarriak osatzen dituzten magnitudeen ebaluazio-metodoetara egokituko da, hots, kontsumoak edo isurketak dagozkien neurketa-tresnen bidez kuantifikatzeko.

2. Horretarako, fakturazioa hileroko egingo da lehen mailako sareko horniketa jasotzen dutenentzako (edo alta eta arazketa); eta hogeita hamar (30) egunetik ehun eta hogeita (120) egunera bitarteko aldian, bigarren mailako sareko horniketarako. Azken kasu horretan, aldi horrek hiruhileko aldiarekin bat egingo du, ahal bada.

41. artikulua. Aldizkakoa ez den sortzapeneko tarifetako zergaldia

Aldizkakoa ez den sortzapeneko tarifen likidazioa egingo da sortzen diren unean; hau da, horniketa-zerbitzuan alta eta baja emateagatiko tarifena eta edateko uraren banaketa-sarerako hargune berriagatiko tarifarena.

42. artikulua. Tarifen hainbanaketa

Zergaldi berean tarifa-aldaketaren bat gertatu denean, zerga-oinarri bezala zehaztutako magnitudearen eguneko batez bestekoa eta dagozkien tarifen indar-egunak biderkatuko dira tasen kuota lortzeko.

Hirugarren Atala

Zerga-kudeaketako jarduketak eta prozedurak

43. artikulua. Tarifen likidazioa

1. Ordenantza fiskal honetan arautzen diren tarifen likidazioek zenbatespen-metodoan aurreikusten diren berezitasunak bete beharko dituzte; berezitasun horiek behin-behinekoak edo konaturakoak izango dira, kontagailuen benetako irakurketak egin eta hurrengo aldietako emaitzen arabera, preskribatzen ez diren bitartean.

2. Artikulu honetako aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, eta oro har, likidazioak zerga-oinarriaren dagozkion aldaketen menpe egongo dira.

3. Kopuruak, emariak edo zerga-oinarri bezala zehaztutako izaera finkoko beste edozein magnitudek edo denbora-unitateak alde aurretik zehaztutako zenbatekoak eragindako zerbitzuak kontratatuz gero, horren ondorioz sortutako tarifen aurreiazko likidazioa gauzatuko da, zerbitzua araupetzen duen ordenantzaren aurreikusitako baldintzetan.

44. artikulua. Baterako kudeaketa

Partzuergoak ordenantza fiskal honetan araupetutako tarifa desberdinak batera likidatu eta bildu ahal izango ditu, betiere, zergaldiek bat egiten badute. Horretarako, guztiak jasoko dituen agiri-euskarri bakarra erabiliko du, baina azalpen bakoitzaren oinarriak eta tarifak bereizita. Izan ere, horien likidazioak banan-banan egingo dira, eta kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak bereizita agertu beharko dira. Kuota horien batuketak agiri bakarraren bidez ordainarazi beharreko kuota bategina zehaztuko du.

45. artikulua. Betebehar formalak

Tarifak ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek, ordenantza fiskal honetako III. kapituluaren zehazten diren bezala, zerbitzua araupetzen duen ordenantzaren aurreikusitako baldintzetan eta ezarri daitezkeen bestelako xedapenen arabera burutu behar dituzte zerbitzuetako alta eta baja aitortpenak. Horrez gain, izaera formaleko datuei buruzko edozein aldaketaren berri eman beharko dute, ezinbestekoak izan daitezkeelako ordenantza fiskal honen helburu diren tasak kudeatu, likidatu eta biltzeko. Era berean, euren gain hartuko dituzte hutsegiteak edo gaizki jakinarazteak eragindako ondorioak.

Laugarren Atala

Diru-bilketako jarduketak eta prozedurak

46. artikulua. Ordaintzeko borondatezko epea

Ordenantza fiskal honetan araututako tarifa guztiak dagokion likidazioa jakinarazi zenetik hasi eta bi hilabeteko epean ordainduko dira.

47. artikulua. Betearazpen-aldia

Aurreko artikuluan zehaztutako borondatezko epean ordaindu ezean, betearazpen-aldia abiaraziko da, eta premiamendu-bidezko ordainarazpena.

48. artikulua. Ordaintzeko moduak

1. Ordaindu beharra dutenek jarraian adierazten den moduan ordaindu ahal izango dituzte ordenantza honek aipatutako zerbitzuak jasotzeagatik sortutako tarifen zerga-zorrak:

- a) Edozein banku-erakunde edo aurrezki-kutxatan helbideratuta.
- b) Partzuergoaren banku-kontuan sartuta, ordainketaren xede den zerga-likidazioa identifikatuta.
- c) Legez onartutako beste edozein ordainketa-moduren bitartez.

2. Ondoren adierazten diren kasuetan, likidazioak eskudirutan ordaintzea exijitu ahal izango du Partzuergoak:

- a) Horniketaren baja-eskabideetan sortzen diren azken likidazioetan.
- b) Ordaintzeko borondatezko epetik kanpo ordaindu behar den beste edozein likidazioren kasuan.

49. artikulua. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea

Borondatezko ordainketa-epearen barruan dauden zerga-zorrak geroratu edo zatikatu egin ahal izango dira, zerga ordaindu behar duenak aldeztatik hala eskatzen badu, eta baldin eta haren egoera ekonomiko-finantzarioak eragotzi egiten badio –aldi baterako– ordainketa ezarritako epean barruan egin ahal izatea.

Nolanahi ere, ordainketaren geroratzeak eta zatikapenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikatzekoak diren indarreko gainerako xedapenetan xedatzen denak eraenduko ditu.

VII. Kapitulua

Zigortzeko ahalmena

*Lehenengo Atala**Zerga arau-haustekak***50. artikulua. Kontzeptua**

Arabako Lurralde Historikorako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan izaera horrekin aurreikusita eta horrela zigortutako edozein arduragabekeria maila duten engainuzko edo erruzko ekintza edo ez-egiteak hartuko dira zerga arau-haustetzat, ordenantza honetan ezarritakoaren kalterik gabe.

51. artikulua. Motak

Zerga arau-haustetzat joko dira:

1. Arabako Lurralde Historikorako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean izaera horrekin ezarritakoak.
2. Partzuergoari hornitutako edo, hala badagokio, isuritako ur-bolumena kontrolatzeko beharrezko elementuak ezkatzea.
3. Kontsumo edo erabilera klandestinoak. Kontsumo edo erabilera klandestinetzat joko dira zerbitzuaren kontratazioa zerbitzu horiek arautzen dituzten ordenantzetan jasotzen diren arauen edo aplikatzekoak diren beste edozein arauen arabera formalizatu gabe edo, hala badagokio, aldeztatik isurketa-baimenik eskuratu gabe egiten diren zerbitzuaren erabilerak.

4. Zerbitzuak arautzen dituzten ordenantzetan edo araudietan aurreikusitako obligazioak ez betetzea, horren helburua baldin bada tarifak kalkulatzeko benetako magnitudeak ezkatzea.

Bigarren Atala

Zehapenak eta neurri osagarriak

52. artikulua. Araubide juridikoa

Zerga arau-haustek zehatuko dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusitako moduan.

Aipatutako Foru Arauak aurreikusten duena izango da zehapen-prozedura.

53. artikulua. Neurri osagarriak

Instalazioen manipulazioak eragindako iruzurra bada, Isurketa Baimena eta/edo horniketa eten egingo da, harik eta instalazioak jatorrizko egoera egokian utzi eta eragindako gastuak likidatu arte, zerbitzua arautzen duen erregelamenduan aurreikusitako moduan.

54. artikulua. Iruzurtutako bolumenen zenbatespena

1. Egindako iruzurraren ezaugarrien ondorioz iruzurrez kontsumitu edo isuritako ur-kopurua zein tarifen ordainarazpena zenbatzerik ez dagoenean eta zehapenak ezartzerik ez dagoenean, honako zenbatespen-irizpide hauek erabiliko dira:

a) Lehen mailako sareko horniketak: segundoko lau litroren (4 l/s) baliokidea, arau-haustek iraun duen bitartean, eta gehienez ere preskripzio-epera arte.

b) Bigarren mailako sareko hornidurak eta/edo saneamendu-erabiltzaileak:

I. Etxeko erabilerak: hiruhileko berrogeita hamar metro kubikoren (50 m³) baliokidea, arau-haustek iraun duen aldiaren, preskribapen-eparearen gehienezko mugaraino.

II. Obretarako horniketak: hiruhileko 100 m³ (ehun metro kubiko) , arau-haustek iraun duen aldiaren.

III. Industria-erabiltzaileak, merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduak, nekazaritza-jarduerak, foru bulegoak, autonomia erkidegoaren eta Estatuko Administrazioaren bulegoak, organismo autonomoak, etxeko ur beroaren instalazio zentralizatuak, suteen aurkako har-guneetarako horniketak eta aurreko epigrafeetan jasota ez dagoen beste edozein horniketa: hiruhileko ehun metro kubikoren (100 m³) baliokidea, arau-haustek iraun duen aldiaren, preskribapen-eparearen gehienezko mugaraino.

c) Baliabide propioak dituzten saneamenduko etxeko erabiltzaileak: hiruhileko isurita hogeit metro kubiko uren (20 m³) baliokidea, arau-haustek iraun duen aldiaren, preskribapen-eparearen gehienezko mugaraino.

d) Baliabide propioak dituzten saneamenduko etxeko erabiltzaileak: hiruhileko isurita hogeit metro kubiko uren (100 m³) baliokidea, arau-haustek iraun duen aldiaren, preskribapen-eparearen gehienezko mugaraino.

2. Ustez aurreko paragrafoan adierazitakoak baino kontsumo handiagoko kasuetan, kontagailu berria jarri ondorengo hiru hilabeteko eguneroko kontsumoa eta/edo dagokion zenbatespena izango dira dagokion tarifa ordainarazteko eta zehapena aplikatzeko oinarria, arau-haustea erregistratzen den aldiari aplikatuta, preskribapen-eparearen gehienezko mugaraino.

55. artikulua. Birjarpena eta kalte-ordaina

Zehapen-prozedurak eragindako administrazio-erantzukizunak honako hauekin bateratu ahal izango dira: erantzuleei arau-haustearen ondorioz aldatutako egoera jatorrizko egoerara itzultzeko eskatu; eta arau-haustek eragindako kalte-ordaina.

56. artikulua. Zehapenak etetea

Zerga izaerako zehapenen betearazpena zuzenean etengo da, eta, horretarako, ez da beharrezkoa izango zehapen horien aurkako errekurtsua edo administrazioko erreklamazioa behar den unean eta eran aurkezteagatiko bermea agertzea. Gainera, ezin izango dira betearazi harik eta administrazio-bidean irmoak izan arte.

VIII. Kapituluak

Berrikuspen-prozedurak

57. artikulua. Sarrera

Ordenantza fiskal honen xede diren tarifak aplikatzeko egintzak eta jarduerak eta zerga arloko zigorrak ezartzeko egintzak berrikusi egin ahal izango dira, indarrean dauden xedapen aplikagarrien arabera. Epai judizial irmoek berretsitako administrazio-egintzak ez dira inolaz ere berrikusiko.

58. artikulua. Berrikuspen-prozedura bereziak

Arabako Toki Ogasunen Foru Arauan eta Zerga arloko Foru Arau Orokorrean xedatutakoak eta ezarri daitezkeen indarreko gainerako xedapenek ezarritakoak eraentzen dute ordenantza fiskal honen xede diren tarifei dagozkien zerga arloko egintzak berrikusteko prozeduren araubide juridikoa, hala nola, erabat deusezak diren egintzen berrikuspenerakoak, egintza deuseztagarrien kaltegarritasun deklarazioena, tarifen aplikaziorako egintzen ezeztapenerakoak, zor ez diren diru-sarrerak itzultzekoak, eta akats materialak eta egitezkoak konpontzekoak.

59. artikulua. Berraztertze-errekurtsua

1. Partzuergoak burutzen dituen ordenantza fiskal honetan arautzen diren tarifen ezarpen-eta eraginkortasun-egintzen aurrean, berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza horiek eman zituen organoari, jakinarazpena jaso zenetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, Toki Ogasunen Foru Arauan xedatutakoak eta ezarri daitezkeen indarreko gainerako xedapenek eraenduko dute berraztertze-errekurtsua.

2. Berraztertze-errekurtsuaren ebazpenaren aurrean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzibideen eskumena arautzeko legerian ezarritako baldintzetan.

Azken Xedapena

2022ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean ordenantza hau.